

AUZO lanien

Etxarri Aranazko udal buletina



Buletin berezia 0 zenbakia 2011ko uztaila

Auzolanien udal buletina

O zenbaki honen asmo nagusia da auzoLANIEN buletina aurkeztea. Udal honek gestio gardena, irekia eta parte-hartzailea egin nahi du. Horretarako, behar-beharrezkoa ikusi dugu udal-buletin bat argitaratzea, herritarren eskubidea delako bera udalak zer egiten duen jakitea. Hemendik aurrera Etxarriko Udalak buletin informatiboak hau argitaratuko du, egiten dituen lanen, egitasmoen eta arazoan berri emango dutena. Zertan ari garen jakinaraziko dugu, eta gure zalantzak, kezak eta asmoak herritarrekin partekatuko ditugu.

Os presentamos el boletín municipal auzoLANIEN. Es fundamental para este ayuntamiento hacer una gestión transparente y participativa, y es un derecho de los/las ciudadanos/as obtener información actualizada de su ayuntamiento. Por eso, se publicará periódicamente este boletín, para informar de la actividad municipal.

Agurra

Etxarriar horri:

Hasteko, udal honek eskerrak eman nehi duzkizu hauteskunde hoiten guu lantaldian alde eindako apustubangati. Gogos, inyerrakin, eta ilusiyos heldu dogu lan berriyai, eta hori dena zukin konpartitu nehiko giñuke.

Argi dakau Euskal Herriyai garai berriyek heldu dazkiyola, eta atzekue bisteti jendu be aurria bueltaik be jotzeko ordube dala, inyerrak pilletus. Guu proiektu politikuen,



Queremos agradecer a los/las etxarriarras que han depositado su confianza en nosotros/as.

Nos enfrentamos con mucha ilusión a este nuevo reto, y pretendemos realizar una labor intensa en el ayuntamiento.

sozialien, linguistikuen eta kulturalien pausu haundiyek emateko garaye heldu da, beti bezin tinko, eta berrituik. Beye gerture etorrita, bakau asmo zehatzogue: **Etxarriko udalien lan sakona eittie.**

Hortako, ahal diaun tresna eta estrategia guziek ibilliko ttugu, eta guu esku don guzie eiñen diau. Espia diau lan hortan herritarron launtze uraitzie, eitteko dona asko beita, eta bidie zelle. Elkarlaniako zubiyek jasotzie denon ardure izenko da.

ALKATETZA



Zertan ari garen

Eta hasiak gara lanean! Poliki-poliki, baina ziurtasunez, 4 lan-ildo nagusi garatzen ari gara, lau urteotan gure egitasmoak gauzatzeko :

- 1- Udalak dituen **indarguneak** zein diren jakitea eta horiek potentziatzea.
- 2- Udalak dituen **arazo nagusiak** identifikatzea, eta lehenbailehen **konponbidea** ematea.
- 3- Gure **herri-programa garatzea**, eta proiektu berriak abiatzea.
- 4- Kudeaketa **gardena eta irekia** egitea, eta herritarrek udal-gestioan parte hartzeko bideak irekitzea.

Orain, hasi berriak garenez, udala ezagutzen ari gara: funtzionamendua, egitura, proiektuak... Bestetik, eguneroko lanetan gabiltza buru-belarri: udako kudeaketa lanak,

eguneroko prozedura administratiboak... Baina batez ere, **udalaren egoeraren diagnostiko bat egiten ari gara: diagnostiko ekonomikoa, juridikoa eta laborala**. Azterketa hori egiteko txostenak eskatuak ditugu, gero gure aholkulari teknikoekin aztertzeko. Espero dugu uda amaitu aurretik diagnosi-lan hori egina izatea.

Actualmente estamos haciendo un análisis de los elementos sólidos del ayuntamiento, para potenciarlos, y por otro lado estamos tratando de identificar los problemas más relevantes, para intentar darles una solución eficaz. En definitiva, estamos realizando un diagnóstico de la situación económica, jurídica y laboral de este ayuntamiento, junto a nuestra asesoría técnica.



Ekainena egindako batzarretan udala osatutzat eman da: alkatea eta 9 zinegotzi (PPko zinegotziak kargua utzi zuen). Hortaz, egitura hau izanen du:

ALKATETZA

Alkatea:
José Ignacio Bakaikoa Aristorena

Alkate ordeak:
Aitor Karasatorre Muguruza
Eneka Maiz Ulaiar

GOBERNU BATZORDE IRAUNKORRA
José Ignacio Bakaikoa Aristorena
Eneka Maiz Ulaiar
Aitor Karasatorre Muguruza
Arantxa Artieda Igoa

BESTELAKO BATZORDEAK

KULTURA-KIROLA:
Iñigo Lazkoz Lekuona

EUSKARA eta KOMUNIKAZIOA:
Eneka Maiz Ulaiar

SOZIOEKONOMIA:
Txeli Erdozia Anso eta Maider Goñi Errazkin

GIZARTE ZERBITZUAK:
Miguel Angel Goñi Ixurko eta
Pirol Campos Araña

BASOGINTZA-INGURUGIROA:
Aitor Karasatorre Muguruza

GAZTEAK, EMAKUMEAK eta HEZKUNTZA:
Edurne Igoa Lizarraga

PARTE-HARTZE BATZORDEA:
José Ignacio Bakaikoa Aristorena

Ongi pasatu, pasatu be!

festak

Udal berri honen hasierako lanetako bat Etxarriko festak antolatzea izan da. Egoera ekonomikoak behartuta, aurrekontua jaitea erabaki zen: urte guztiko festak antolatzeko 80.000 euro, iaz baino %11,11 gutxiago. Aurrekontua jaisteko bi irizpide erabili dira. Alde batetik, ekitaldiak murriztu baino, formato txikiagokoak antolatzea (urrutiko ikuskizunak beharrean gertuagokoak eskaintzea...). Eta bestetik, herritarren partehartzearekin egindako eta haiekin moldatutako ikuskizunak



lehenestea (pilotak, herri kirolak, play back, euskaraokea...etab). Aurten, gainera, haurrentako eta gaztetxoendako ekitaldiak indartu dira, gabeziarik gehiena adin-tarte horretan dagoela ikusi delako.

Udal honen helburu nagusietako bat herritarren partaide izatea denez, festetan ere elkarlanerako ekimen batzuk bultzatu ditugu herriko zenbait talde eta eragilerekin. Lankidetzaren horren emaitza dira, esate baterako, Errepresaliatuen Eguna, Kintoen Eguna, Aittun-amiñen Eguna... etab. Eta nobedade moduan, aurten Artie Kalia! taldeak udaletxearen fatxada apainduko du, festetan ere artea eta herria uztartzeko. Gainera, Etxarriko Udalak, EHErekin eta Gazte Asanbladarekin batera, euskararen aldeko kanpaina bat egingo dugu, lelo hau daukana: Etxarriarrok euskera biyotzien, buruben eta aguen! Hortaz, animatzen zaitugu festetan ere lelo hori praktikatzen, eta aterako diren pegatinak eramatera.

Festetako argazki-bilduma ere egin nahi dugu, udalaren WEB-

orriko www.etxarriaranatz.com argazki-galerian paratzeko. Beraz, bidali zure mobilarekin edo kamerarekin ateratako argazkiak kultura@etxarriaranatz.com helbidera! Jasotakoan artean saria zozketatuko dugu.



Txupinazoari eta jarraian egingen den ekitaldiari dagokionez, aurten omenaldia Etxarriko Abesbatzari egitea erabaki da, lau hamarkadotan Etxarriko kulturaren alde lan bikain eta etengabea egin dutelako. Batez ere abesbatzari hasiera-hasieratik abesten aritu diren etxarriarrok izan nahi ditugu gogoan udal honek. Omenaldia eta otamenera Etxarriko talde eta erakunde guztietako ordezkariak gonbidatu ditugu.

Se ha reducido el presupuesto de fiestas en un 11,11%, y se han potenciado las actividades para el público familiar. Por otro lado, hemos fomentado la colaboración con diferentes grupos y entidades del pueblo. Con respecto al chupinazo, el ayuntamiento homenajeará a miembros veteranos de la Coral de Etxarri, como agradecimiento a la labor cultural continua realizada estas cuatro últimas décadas. Por otro lado, te animamos a que participes en iniciativas como Etxarriarrok euskera biyotzien, buruben eta aguen!, o en la recopilación de fotos de fiestas para la galería de fotos de la WEB, para ello envía tus fotos a la dirección kultura@etxarriaranatz.com.

Nota: si quieres obtener este boletín íntegramente en castellano, solicítalo en el ayuntamiento, o descárgatelo de nuestra página WEB. www.etxarriaranatz.com

PARTEHARTZEA

ZU

partaide izatea nahi dugu!

Zuk parte hartzea ezinbestekoa da aipatutako hau guztia egiteko! Udalean sortu ditugun batzorde horietan eserleku bat dugu zuretako gordeta. **Aukeratu ezazu zuretako egokiena den batzorde bat (edo gehiago)**, eta horretan parte hartzeko gonbitea luzatzen dizugu: kultura eta kirola, euskara, komunikazioa, sozioekonomia, gizarte-zerbitzuak, ingurugiroa eta basogintza, gazteak, emakumeak, hezkuntza eta parte-hartzea. Dagoeneko lantalde horiek lanean ari dira, baina ateak parez pare zabalik dituzu gehien atsegin duzun batzordean zure ekarpena egin ahal izateko. Jakin ezazu udazkenean batzorde horiei buruzko informazio zehatzagoa emanen dugula: helburuak, dinamika, bilera-egunak... Beraz, animatu zaituzte eta **egin herria, Etxarri denon artean eraiki behar dugu eta!**

¡El ayuntamiento ya se ha constituido! Te animamos a que participes en una de nuestras comisiones: *cultura y deporte, euskera, comunicación, socioeconomía, servicios sociales, medioambiente y medio forestal, juventud, mujer, educación, y participación ciudadana*. ¡Tenemos una silla reservada para ti! Aportaremos más información sobre los objetivos y funcionamiento de las comisiones en otoño.

udal taldea

